

Negoiazio Kolektiboaren egungo egoeraren eta ADEGIren jarreraren aurrean LABek egiten duen irakurketa

Gipuzkoan sektore hitzarmen asko eta garrantzitsuak daude negoziatzeko eta baita hainbat enpresa hitzarmen ere. Hitzarmenak 3 bloketan zatitu ditzakegu: 2000 – 2001 urteetatik negoziatu gabe dauden 8 hitzarmen —Adegik negoziazioak amaitutzat ematen dituenak—; 2009an negoziatu behar zirenak beste bost eta oraindik itxi gabe daudenak eta 2010ean negoziatzea tokatzen direnak (metala, eraikuntza, garbiketa, gasolindegia, merkataritzako hainbat... Orotara 10 hitzarmenetik gora.

Adegiren jarrera zein den ikusita, negoziazio kolektibo zaila eta gogorra aurreikusi dezakegu. Negoziatzeko borondate falta agerian geratu da. Urtarrilean egindako elkarrizketa batean, publikoki adierazi zuten egungoa mantentzearen aldeko apostua egiten zutela: soldatak izoztu, lanaldi murrizketarik ez eta noski bestelako gaietaz hitzegin ere ez. Eta sindikatuok gure aldarrikapenekin jarraitu ezkerko negoziazioak blokeatzeko mehatxua egiten zuten.

Baina hori jarrera bigunegia izango zen nonbait, gehiago tenkatzearen beharra ikusi dute eta aste honetan ezagutu dugu metalgintzarako egiten duten proposamena. **PROBOKAZIO HUTSA**. Langile gehien hartzen dituen hitzarmena izanik beste negoziazio batzuetarako ere erreferentzia.

Adegik badaki honelako proposamenekin ezin dela akordioetara iritsi baina ez ote du eskenatoki hori bilatzen? Adegik ez du akordiorik nahi, langileak hitzarmenik eta babesik gabe utzi nahi dituelako, negoziazio kolektiboa erabiliz lan merkatua are gehiago desarautzeko.

Jarrera harro eta erasokor hau ez da berria. Orain krisiaren testuingurua baliatu nahi dute negoziazio kolektiboa edukiz hustutzeko. Langileen zihurgabetasunaz eta beldurraz baliatuz jarrera probokatzailer horretan urrats berriak emateko indar eta babes nahikoarekin sentitzen dira.

Gainera, ekonomiaren erreperazioa guztion gauza eta guztion mesedetan dela esateko aurpegia daukate. Azken urteetan enpresariak dirua barra-barra irabazi duten bitartean lan harremanak prekarizatuz.

Hazkunde ekonomikoa etengabea izan den 15 urteetan patronalak ez du inolako borontaderik izan edukiz betetako hitzarmenak negoziatzeko, inolako aukerarik ez langileen lan baldintza prekarioak hobetuko lituzketen hitzarmenetara iristeko eta batere erreparorik ez hitzarmenak hiltzen utzi eta langileei estatuko hitzarmenaren erreferentzia inposatu nahi izateko. Hiltzat eman dituzten zortzi hitzarmen horiekin gertatu den moduan.

LABek jarraituko du hitzarmen hauen aldeko defentsa egiten guretzat ez daude hilda indarrean jarraitzen dute eta defendatuko ditugu. Arduragabekeria latza litzateke herrialde mailako hitzarmen hauek hiltzen utzi eta estatuko inposaketa onartzea.

Langileen lan baldintzak eta soldatek ez dute sortu krisia baina langileak dira ondorioak pairatzen ari direnak: langabezia gora, espedienteak, malgutasuna areagotzeko saiakerak etab. Dagoeneko langileek ez al dute kostu altua ordaindu krisiarengatik? Patronalarentzat inoiz ez da aski. Orain Adegik honelako asmoekin dator, langileei oraindik ere zuku gehiago ateratzeko helburuz.

Aberastasuna sortzen da baina gaizki banatzen da. Beraz, langileen eskubideen aldeko defentsa egin nahi badugu aberastasun banaketa orekatuago baten alde borroka egin behar da. Horretarako negoziazio kolektiboak zeregin garrantzitsua du.

Negoziazio kolektiboa langileen soldata eta lan baldintzak hobetzeko tresna da eta 2010erako ere LABen helburua hori izango da. Norabide horretan urratsak ematea. Beraz argi eta ozen esaten diogu Adegiri ez dugula soldata izozketarik onartuko, ez garelako flexiseguritatearen tranpan eroriko. KPIaren gaineko soldata igoerak, lanaldiaren murrizketa eta antolaketa egokia, prekarietatearen aurkako neurriak, lan osasuna eta aukera berdintasuna izango dira gure lehentasunak.

LAB ez dago prest patronalaren estrategia ontzat emateko eta eduki duinak izango dituzten hitzarmenen alde egingo dugu. Eta horretarako bide bakarra daukagu, beste aukerarik uzten ez digutelako, langileak mobilizatzearena. Langileak hitzarmenen aldeko defentsan aktibatu eta kalera ateratzea.

Konfrontazioa indartu behar da lantegietan eta kalean, patronalaren erosotasuna apurtu behar da. Sektore bakoitzak bere aldarrikapen eta errealitatearen arabera mobilizazio aukerak eskainiz langileei eta sektore desberdinetako langileak elkarrekin batzeko aukerak aztertuz.

Patronalak, Adegik kasu honetan, konfrontaziorik ikusten ez badu ez du inolako erreparorik langileak zintzilikatuak uzteko eta konbenioak desagertzen uzteko. Egin du eta egingo du. Erreforma eta erabaki politiko desberdinen bidez, enpresariei gero eta botere gehiago ematen zaie. Egoera ekonomikoaren atzean, erabaki politikoak daude eta berriro ere erreforma berrien atarian gaude.

Madrilgo Gobernuak iragarri ditu pentsioen erreformaren nondik norakoak eta nolako lan erreforma izango dugun gaur ezagutuko dugu. Euskal Herriko langileei eragingo dieten inposaketa berrien aurrean gaude. Gaurkoa ez da honetan sakontzeko baina hor daudela kontuan hartzeko eta erantzun beharko dela. Erronka honetan elkarlan sindikala aktibo bat da eta bultzatuko dugu edukietan eta dinamika sindikalean gurekin bat egiten dutenekin.

Bukatzeko UGTk berriki egin dituen adierazpen batzuen inguruan LABen jarrera argitzea. Gutxiengoan sinatzearen aldeko apostua egin du.

Ez dugu irakurketa hau konpartitzen. Gehiengoan errespetua negoziazio kolektiboan oinarritzko printzipioa da eta sindikatuen arteko harremanetan nagusitu behar da.

Zentzu honetan eztabaida ezin da bilakatu gutxiengoan bai ala ez, baizik eta zer

lanketa sindikal egingo dugun patronala eduki duinak mahai gainean jartzera derrigortzeko. Patronalak mahaiak edukia jartzen baditu hitzarmena aurrera ateratzeko behar diren gehiengoak lortuko dituelako.

Enpresariekin akordioak gutxiengoan sinatzea langileentzat kaltegarria da, hitzarmen merkeagoak adosteko aukera ematen zaielako. Hau da elkarrizketa sozialeko mahaiak gertatzen ari dena, gutxiengo sindikalak gehiengoaren izaera hartu nahi du. Honek propogandarako eta medioetan egoteko aukera ematen die baina langileei zer onura ekartzen die? Non daude adibidez mahai horretan erdietsitako akordio baten bidez sortu beharreko 7.500 lanpostuak? Langile horiek langabezian jarraitzen dute.

Beraz, UGT-ri hori ez dela bidea eta patronalari ez dadila hitzarmenak gutxiengoan sinatzeko tentaldian erori. Ez baitu sahistuko konfliktibitatea.